

## Ondare begiradak. I. Argazki Lehiaketa

Zer dute amankomunean “silbo gomero”-k, “castells catalans”-ek edota Camboyako itzal

antzerkiak? Eta mediterranean dietak, bertsolaritzak edota artisau-teknika tradizionalak? Museum Cemento Rezolak ondarearen sentsibilizazio proiektuaren bidez, *Ondarebizia* deritzoguna, argazki lehiaketa bat ipintzen du abian, gure Ondarearen begirada berriak ireki nahi dituenak, zentzu zabalean ulertuta.

Lehiaketa honek ondarea eta herritartasunaren arteko erlaziorako espazio berriak ireki nahi ditu, partaidetza prozesuen bidez, sektoreko agenteen kultur kolaborazioak bultzatu.

## Ondare begiradak. Argazki lehiaketa

Ondare kulturala ez da monumentu eta objektuen bildumetara mugatzen, gure arbasoengandik jasotako eta belaunaldiz belaunaldi transmititutako tradizioak edo espresio biziak ere badira.

Lehiaketa honen bidez beste begirada batzuk irekitzea bilatzen dugu, **ONDARE EZ-MATERIALA**ren errepresentazio, erabilera, espresio ezberdinetara hurbilduko gaituztenak, komunitateei atxikituak, gure ondarea integratzen dutenak.

UNESCOren Ondare Ez-materiala Babesteko konbentzioak (Paris, 2003) **ondare kultural ez-materiala** “komunitate, talde eta kasu batzuetan gizabanako bakoitzak bere ondare kulturala osatzen duten erabilerak, errepresentazioak, espresioak, jakintzak eta teknikak –hauei atxikitzen zaizkien instrumentu, objektu, artefaktu eta espazio kulturalak barne- onartzea”k osatzen du.

Zehazki “ondare kultural ez-materiala” erabilera, errepresentazio, espresio, jakintza eta teknika -hauei atxikitzen zaizkien instrumentu, objektu, artefaktu eta espazio kulturekin batera- komunitate, talde eta kasu batzuetan gizabanakoak bere ondare kulturala osatzen duena onartzen duenean ulertzen da. Hauek dira:

- a) ahozko tradizio eta espresioak, hizkuntza ondare kultural ez-materialaren eramaile bezala kontuan hartuz.
- b) Ikuskizunen arteak.
- c) Erabilera sozial, erritual eta jai ekitaldiak.
- d) Natura eta unibertsoarekin lotura duten jakintza eta erabilerak.
- e) Artisau teknika tradizionalak.

## **Parteartzaileak:**

Interesatua dagoen edonork parte hartu ahalko du, profesionalak edo amateurrak, 18 urtetik aurrera.

## **Gaia:**

Argazkien gaia Euskal Ondare Kultural Ez-materialarekin lotura duen edozer izan daiteke.

Hau da, manifestazio kultural bizi oro esanahi kolektibo partekatua eta komunitatean sustraitzea duena, ondare kultural ez-materialaren barruan.

Aurkeztuko diren argazkiak bi kategoria hauetako batean sartu beharko dira:

- A- Ondare kultural ez-materialarekin lotura duten egungo argazkiak. Argazkiak koloretan izango dira.
- B- Argazki ukituak: Egungo argazkiak euskal ondare kultural ez-materialarekin lotura dutenak ediziozko programa batekin ukituak daudenak.

Argitasuna, kontrastea, koloreen saturazioa edo zurien orekari eragiten dien doikuntzak soilik onartuko dira. Inskripzio gainjarriak dituzten argazkiak ez dira onartuko. Argazkiak koloretan, txuri-beltzean edo sepian izan daitezke.

Balorazio irizpideak:

- Proposatutako gaira egokitzea.
- Aurkeztutako argazkiak lan original eta berria izan behar dute.
- Sormena.
- Ondare Kultural Ez-materialaren tratamenduan berrikuntzak: enfokatzeko era berriak, originaltasuna.
- Kalitate teknikoa: irizpide determinatzailea izango ez den arren irudiaren kalitatea baloratuko da.

## **Bozkatze prozesua:**

Epaimahai profesional bat eratuko da, zeinak bi kategorietan jasotako argazkiak baloratuko ditu eta une horretan erabakiko du Epaimahai Profesionalaren Sariduna. Era berean, epaimahai honek, A kategoriaren barruan jasotako argazkien aukeraketa bat egingo du eta hauek Museum Cemento Rezolan ipiniko dira erakusgai maiatzaren 5etik 17ra. Erakusgai dauden argazkiak Epaimahai Herrikoiak baloratuko ditu eta ondorioz Epaimahai Herrikoia Saria emango da.

Bi Epaimahaien ebazpena 2014ko maiatzaren 22an ezagutaraziko da.

## **Epaimahai profesionalaren botazioa:**

Argazkilaritza munduko profesional eta museotako profesionalez osatua egongo da.

Epaimahai profesionalak kategoria bakoitzeko sari bana emango du:

- A) Euskal Ondare kultural ez-materiala.
- B) Euskal Ondare kultural ez-materiala/ Argazki ukitua

### **Epaimahai herrikoiaren botazioa:**

A kategorian jasotako argazkiak Museoan erakutsiko dira maiatzaren 5etik 22ra. Egun hauetan zehar, museoaren irekiera ordutegian, bisitatzera joan den edonork bozkatzeko aukera izango du.

### **Sariak:**

A Kategoria Euskal Ondare kultural ez-materiala:

Epaimahai profesionalaren saria: 300 euro.

Epaimahai herrikoiaren saria: 100 euro.

B Kategoria Euskal Ondare kultural ez-materiala /Argazki ukituak:

Epaimahai profesionalaren saria: 300 euro.

### **Parte hartzeko oinarriak:**

- Egile bakoitzak gehienez 3 argazki izango ditu aurkeztea, JPG formatuan, 2MGk o tamaina pasa gabe eta 800 x 600px gutxienerako dimentsiotakoa. Gero aukeratutakoei argazkiak tamaina originalean bidaltzeko eskatuko zaie.
- Onarpen-epaia 2014ko apirilaren 23an amaituko da, hau barne.
- Epaimahai profesionalak A kategorian aukeratutako argazkiak Museumean erakusgai egongo dira maiatzaren 17a arte. Denbora tarte honetan, museoko bisitariak argazkiak baloratu ditzakete.
- Bi Epaimahaien ebazpena maiatzaren 22an jakinaraziko da.
- Parte hartzaileek bere gain hartzen dituzte argazkietan agertzen diren pertsonen baimenak, eta erreklamatu daitezkeen erresponzabilitateak.
- Lehiaketaren erabakiaren ondoren, antolatzaileak saritu gabeko artxiiboak suntsituko ditu. Aurkeztutako materiala ez da itzuliko.
- Antolatzaileak deialdi hau hustzat jo dezake.
- Lehiaketa honetara aurkeztutako argazkiak originalak eta berriak izango dira, ezin izango dituzte euren eskubideak eman, ezta beste lehiaketa batean sarituak izan.
- Argazkien egile-eskubideak argazkilariarenak izaten jarraituko dute.
- Antolatzaileak aurkeztutako materiala erabili ahalko du lehiaketa honen promozio helburuarekin betiere egilea izendatuz.

### **Argazkiak bidaltzeko:**

- [Ondarebizia@gmail.com](mailto:Ondarebizia@gmail.com) helbide elektronikoaren bidez gaia adieraziz: *I Argazki Lehiaketa Ondarebizia 2014*. Argazki artxiboan jasota egon beharko da bere izenburua.

Posta elektronikoa berean argazkiak eta izen-emate formularioa erantsi behar dira, [www.museumcementorezola.org](http://www.museumcementorezola.org) web orrian eskuratu daitekeena.

Formulario honetan egilearen datu pertsonalak zehaztuko dira, baita argazki artxiiboak daraman izenburua ere. Aurkeztutako argazkiak zein kategoriatan parte hartuko duten zehaztuko da.

Egilearen datu pertsonalak erantsitako formularioan bakarrik agertuko dira.

- Argazkiak grabatuak dituen CD baten bidalketa. Bidalketa posta bidez egingo da. CD-a zein gutun-azala izen honekin identifikatuko dira: *Argazki lehiaketa Ondarebizia 2014*. Ez CD-an ezta gutun-azalean ez da egilearen izena agertu behar. Gutun-azalaren barruan aurkeztutako CD-a eta beste gutun-azal itxi batean izen-emate formularioa egon behar dute. (Formularioa [www.museumcementorezola.org](http://www.museumcementorezola.org) web orrian jaitsi). Formulario honetan egilearen datu pertsonalak zehaztuko dira, eta argazkiak zein kategoriatan aurkeztuko dituen.

GUTUN-AZALAK posta helbide honetara bidali behar dira:  
*Museum Cemento Rezola*  
*Avenida de Aorga 36,*  
*20018 Donostia-San Sebastian*

Bidalketa email bidez edo postaz egin, argazkiek ondorengo dokumentazioaz lagunduak joan behar dute:

- Izen-emate formularioa beteta.
- Egilearen NAN-aren fotokopia.
- Aurkeztutako argazkiak originalak eta berriak direla baieztatzen duten deklarazioa, euren eskubideak ez dituztela emanak, eta beste lehiaketa batean ez direla sarituak izan.

Gutun-azala pertsonalki aurkeztu ahalko da Museum Cemento Rezola eraikinean.  
*Museum Cemento Rezola, Avenida Añorga 36, 20018 Donostia-San Sebastian.*

15/199 Lege Organikoarekin adostuta, Izaera Pertsonaleko Datuen Babesa (LOPD), eta 2007ko abenduaren 21ko bere garapen araudikoa, Deialdi honetan partaideek emandako datuak, fitxategi batean jasoak izango dira honen arduraduna K6 Gestión Cultural, SL. delarik deialdi honi bide emateko bakarrik erabiliko direlarik. Izaera pertsonaleko datuak egokia den babes mailan tratatuak izango dira bitartekariak eskutik gerta litezkeen aldaketa, galtze, baimenik gabeko tratamendua edo sarbidea galarazteko hauek jasoak izan ziren helburu ezberdinekin. Datuen jabeek euren sarbide, zuzenketa, ezeztatze eta aurkakotasun eskubideak ezarri ditzakete indarrean den araudiaren arabera.

## **KONTSULTAK ETA INFORMAZIOA:**

Museum Cemento Rezola  
943364192  
[ondarebizia@gmail.com](mailto:ondarebizia@gmail.com)

## **ERABAKIA:**

Hautaturiko epaimahaiak, aurkezturiko argazkiak baloratuko ditu eta bere erabakia 2014ko maiatzaren 22an helaraziko du. Deialdi honetako irabazleak telefono bidez jakinaraziak izango dira.

Antolatzaileak deialdiaren emaitza huts jotzeko eskubidea gordetzen du horrela beharko balitz.

Deialdi honetan parte hartzeak oinarri guztiak baldintzarik gabe eta bere osotasunean onartzea suposatzen du.